


ATXIKIMENDUAK

Atxikimendua eman dutenen artean, sustatzaileek ondokoak nabarmendu zituzten atzoko agerraldian:

Andoni Egaña (Bertsolaria)
Benito Lertxundi (Abeslaria)
Mikel Laboa (Abeslaria)
Sebastian Lizaso (Bertsolaria)
Maialen Lujanbio (Bertsolaria)
Jon Maia (Bertsolaria)
Jexux Mari Irazu (Bertsolaria)
Joxerra Gartzia (Idazlea)
Su Ta Gar (Musika taldea)
Patxi Biskert (Aktorea)
Xabier Bareño (Politikari ohia)
Cesar Manzanos (Salhaketa-Gasteiz)
Felix Placer (Herria 2000 Eliza)
Jesus Valencia (Gizarte hezitzailea)
Modesto Marañon
Patxi Marta (Whu-su euskal selekzioakoa)
Xabier Elorriaga (Aktorea)
Kirmen Uribe (Idazlea)
M. Otamendi (EGUNKARIAKO zuzendaria)
Imanol Murua Uria (Kazetaria)
Xabier Lekuona (Kazetaria)
Ramon Agirre (Aktorea)
Loli Astoreka (Aktorea)
Karlos Zabala (Zinemagilea)
Koldo Izagirre (Idazlea)
Joseba Tapia (Musikaria)
Eva Forest (Idazlea)
Alfonso Sastre (Idazlea)
Txillardegi (Idazlea)
Joan Mari Irigoien (Idazlea)
Joan Mari Larrarte (Martin Ugalde Kultur Parkeko kudeatzailea)
Mertxe Aizpurua (GARAko zuzendaria)
Martin Garitano (Kazetaria)
Iñaki Altuna (Kazetaria)
Jon Odriozola
Maitte Aristegi (EHNEko idazkari ohia)
Rafa Castellano (Idazlea)
Pako Aristi (Idazlea)
Laura Mintegi (Idazlea)
Jasone Osoro (Idazlea)
Ana Tudanca (Abokatua)
Borja Irizar (Abokatua)
Iñigo Santxo (Abokatua)
Kepa San Pedro (Abokatua)
Arantza Zulueta (Abokatua)
Iñaki Goioaga (Abokatua)
Iñaki Saratxaga (Argazkilaria)
Nestor Basterretxea (Eskultorea)
Koldobike Jauregi (Eskultorea)
Dora Salazar (Eskultorea)
Jose Ramon Moquillas (Margolaria)
Xabier Morras (Margolaria)
Anje Duhalde (Musikaria)
Josu Naberan (Idazle eta historialaria)
Battitta Ameztoi
Mixel Bernadet (ACIko kidea)
Jojo Bidart (Preso ohia)
Niko Etxart (Musikaria)
Manex Goienetxe (Historialaria)
Pantxo Hirigarai (Antzerkigilea)
Mattin Hirigarai
Jose Mari Esparza (Txalapartako editorea)
Sabino Cuadra (Abokatua)
Miren Zabaleta (Ikasle Abertzaleak)
Begoña Zabala
Pedro Mari Esarte
Gaizka Aranguren (Kazetaria)



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Manifestaziorako jasotako atxikimenduak aurkeztu zituzten atzo prentsaren aurrean. Agerraldian, besteak beste, honako hauek izan ziren: Xabier Amuriza, Amparo Lasheras, Jon Maia, Txomin Ziluaga, Jean Claude Agerre eta Anjel Mari Elkano.

Bostehundik gora atxikimendu jaso ditu manifestaziorako deialdiak

Atxikimendu kopurua eta horien aniztasuna ikusita, «azkenaldiotako manifestaziorik jendetsuenetarikoa izatea» espero dute

Maria Gonzalez | BILBO

Kultur eta gizarte arloko hainbat lagunek atxikimendua agertu diote bihar Bilbon egitekoa den manifestaziora, eta horietako batzuk jendaurrean agertu ziren atzo. «Plataformarik edo kolektiborik» osatzen ez dutela azaldu zuten; alderantziz, «manifestazio honetarako elkartutako herritarrak» direla argitu zuten. Han izan ziren, besteak beste, Jon Maia bertsolaria, Iñaki Uriarte arkitektoa, Xabier Amuriza bertsolaria, Amparo Lasheras kazetaria, Iñaki Saratxaga argazkilaria eta Jon Idigoras «politikari ohia».

Dagoeneko, 500dik gora atxikimendu jaso ditu biharko manifestazio nazionalak. «Norbanakoen atxikimenduen kopurua eta horien aniztasuna» ikusita, «azken hamarkadako manifestaziorik jendetsuenetarikoa izatea» espero dute atzoko agerraldikoek. Hortaz, biharko «manifestazio historikoa» izango dela esan zuen Xabier Amurizak.

«Eskubide zibilen eta politikoen defentsa» izango da bihar Bilbon bilduko direnen «errebindikazioa», Amurizak azaldu zuenez. Adierazpen askatasuna, hizkuntza eskubidea eta biltezeko eskubidea «salbuespen

egoera gordinean» daudela salatu zuen. «Herri moduan egunero urratzen zaizkigun eskubideak ezkutuko albuespen egoeran» daudela gaineratu zuen Amparo Lasheras kazetariak. «Pertsonen, herrien eta gizartearen askatasun indibidualari eta kolektiboari datxe-

AMPARO LASHERAS

«Herri moduan egunero urratzen zaizkigun eskubideak ezkutuko albuespen egoeran daude»

kien eskubideak dira», jarraitu zuen. «Hasiara batean, eskubide gutxi batzuk dira eta, gero, denak izan daitezke», gehitu zuen Lasheras, alde horretatik. Eskubide horiek aintzatetsita izateko «40 urte» igaro behar izan direla gogoratu zuen.

«Euskal Herriko gizarte osoari» dei egin zion Lasheras, biharko manifestazio nazionalen parte hartzeko. Amurizak, bestalde, «deialdi irekia» dela argitu zuen. «Sentiera eta pentsaera ezberdinak barneratzen dituen leloa da *Gora Euskal Herria*», azaldu zuen. Hortaz, manifestazioko lelo horri norberak «bere interpretazio ideologikoa» eman diezaiokeela adierazi zuen Amurizak. Manifestazioa 17:30ean abiatuko da, Aita Donostia plazatik.

Euskal Herria
gora 14an manifestazioa
 arratsaldeko 5:30etan, Aita Donostia plazatik

LAB